

DENOK KIROLARI

·Elkarrizketa: Tokikom: tokiko aldizkariak hobetzeko tresna ·Zuek bai jakin!: Juan Mari Garitano ·Izerdi patsetan: Asier de la Iglesia ·Boteprontoan: Lucia Otaegi

Herri Aldizkaria Otamotz

2009ko
abendua
152. alea





Hotza hasi da eta ganbaran
baztertu udako gonak,
tenperatura epeldu digu
halere Gabonen sonak.
Sasoi honetan izaten dira
benetako zorionak
opari on bat du Olentzerok
eta turroiak amonak.
Zorionak (e)ta ondo igaro
aurtengo hontan GABO-
NAK

URRETXU
ZUMARRAGA



Doinua: Itsasoari begira
Bertsoa: Mikel Iturriotz
Irudia: Miren Sudupe eta Miryam Vega


Euskadi

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Denok kirolari
- 10 Elkarrizketa**
Tokikom: tokiko aldizkariak hobetzeko tresna
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala jarraitu al zenuen?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**
Jose Luis Garmendia
- 18 Zuek bai jakin!**
Juan Mari Garitano
- 23 Argazki zaharra**
- 25 Izerdi patsetan**
Asier de la Iglesia
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Lucia Otaegi



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Denok kirolari

Gero eta jende gehiagok egiten du kirola: garai batean gizonezko gazteen kontua zela zirudien, baina egun emakume eta adineko asko ere ikus daitezke. Kirolak adinik eta sexurik ez duela erakusteko, adin ertaineko bost emakumerekin izan gara: alde batetik maiatzean Donejakue bida egin zuten Mari Carmen Urretabizkaia eta Arantxa Zalduarekin eta bestetik Arantxa Azpiazu Zumarragako kiroldegiko langilearekin, Axun Aranbarri txirrindulariarekin eta Itziar Urzelai korrikalariarekin.

Axun Aranbarri eta Itziar Urzelai Ispilla kiroldegiko bizikletetan.



Itziar Urzelaiak kirola egitearena beretzat gauza berria dela aitortu du. "Aspaldi mantenu-gimnasia eta halakoak egin nituen. Bizpahiru urtez aritu nintzen eta gero utzi egin nuen. Duela bi urte, berriz, korrika egiten hasi nintzen. Lagunek ere egiten zuten eta probatzea erabaki nuen. Gustatu egin zitzaidan".

Dena den, lehen egunak gogorrak izan zirela aitortu du. "Gihar guztietan mina nuen. Izan ere, lehen egunean nahiko buelta luzea eman genuen: bidegorriko lehen zubiraino joan ginen. Hala ere, gustura hartu nuen". Hainbeste, non, iaz Behobia-Donostia lasterketa egiteko asmoa zuen. "Izena eman nuen, baina lesionatu egin nintzen eta ez nuen parte hartzerik izan", azaldu du.

Osatu bezain pronto, korrika egiteari ekin zion berriro. Hala, aurten Donostian antolatzen den lasterketa ospetsua bukatzea lortu du. Askok entrenatu ondoren, noski. "Astean hiru egunetan atera-

tzen naiz. Normalean Santa Barbarara joaten naiz, baina beste batzuetan bidegorrira. Aldapa gora joaten naiz, baina poliki-poliki: estutu gabe eta musika jarrita". Kirola egiteak mesede egin diola uste du. "Hernia diskala dut eta, teoriarik, korrika egitea ez da ona; baina korrika egiten dudanetik askoz ere hobeto nago. Gainera, kirola egitera joaten ez naizenean, urduri sentitzen naiz".

Berak eta bere bi kideek kirola egiten duten emakumeak gero eta gehiago direla uste dute. Aranbarrik beti egin du kirolen bat. "Aerobic, patinetan ibili naiz, eskiatzera joan izan naiz, orain bizikletan ibiltzen naiz... Baina zortzi urtetan ezer

Arantxa Azpiazu:

"Ez ginen bakarrik joaten mendira. Mutil baten edo tropelaren babesa behar genuela zirudien"

egin gabe egon nintzen: lehenengo alaba bat izan nuen, gero bestea...".

Arantxa Azpiazuk dagoeneko emakumeek ez diotela amatasunagatik kirola egiteari uzten aipatu du. "Orain bertan mutil gazte batekin topo egin dut. Gimnasioan egon da eta txandatzera zihoan: berak haurra hartu behar zuen eta emaztea kirola egitera zihoan. Gure garaian gauzak ez ziren hala. Egun bikoite asko kirolariak dira eta ez diote kirola egiteari utzi nahi".

Azpiazu ere betidanik da kirolaria.

Itziar Urzelai eta Axun Aranbarri Ispilla kiroldegiko gimnasioan.



"Senarrarekin gaztetan hasi nintzen eta asko joaten ginen mendira. Ia astebururo. Ostadarren irteeretan parte hartzen nuen eta eskiatzera ere joaten nintzen". Gainera, kirol munduan lan egiten du. Hori dela eta, asko pentsatu du gaiaren inguruan. "Sekula ez dut lehia kirolik egin, baina zer da kirola? 70 urte inguruko emakume batzuek 20 bat urte daramatzate kiroldegira etortzen. Hirugarren adinekoentzat gimnasia egiten dute. Niretzat horiek besteak bezain kirolariak dira".

Aranbarrik kontua hastea dela dio. "Gero, norberak bere helburuak jartzen ditu: proba batera joatea, esaterako". Ederki asko daki nola ematen diren lehen pausoak, bera duela urte gutxi hasi baitzen bizikletan ibiltzen. "Senarraren eskutik hasi nintzen. Umetan bizikleta nuen, baina urte askotan ez nintzen ibili. Duela hiru urte hasi nintzen eta, dagoeneko, Tourmalet igotzea lortu dut ia. Gaietik hiru kilometrora gelditu nintzen. Hurrengoan izango da".

Izan ere, jarraitzeko asmoa du. "Txirringularitzak asko eman dit. Izan ere,

koadrilatxo osatu dugu eta bidean gelditu egiten gara ogitartekoa jatera eta tertulia egitera. Igandetan errepidean ibiltzen naiz eta beste hiru egunetan spinning egiten dut. Kirola egiteak satisfazio handia eskaintzen du: gustatzen zaidalako egiten dut, ez argaltzeagatik edo beste edozerengatik".

Hiruek kirolarekin obsesionatua dagoen jendea dagoela diote. "Lehen mutilak bakarrik ziren, baina orain neskak ere ikusten dira. Mutilen pare jarri dira kontu horretan ere. Kiroldegira lehen baino askoz ere emakume gehiago etortzen dira. Askok futbol mundutik datoz: nire ustez futbolarik ate bat ireki zuen. Lehen mantenu gimnasia eskoletara eta halakoetara bakarrik etortzen ziren. Orain asko spinning eskoletara eta igeriketara egitera etortzen dira. Bestalde, lehen neskak ez ginen bakarrik joaten mendira. Mutil baten edo tropelaren babesa behar genuela zirudien. Orain, berriz, ez da halakorik gertatzen: bakarrik edo beste emakume batzuekin joaten gara", azaldu du Azpiazuk.

Mari Carmen Urretabizkaia eta Arantxa Zaldua: “Donejakue bidean gizon taldeak eta bikoteak ikusten dira gehien”

Mari Carmen Urretabizkaia eta Arantxa Zaldua zumarragarrei ibiltzea gustatzen zaie eta aurtengo udaberrian Donejakue Bidea egin dute. Esperientzia bikaina izan dela diote eta gainontzeko emakumeei merezi duela azaldu nahi diete.

Biei aspalditik gustatzen zaie ibiltzea. “Ibiltzea baino gehiago, mendira joatea gustatzen zaidala esango nuke. Nire helburua ez da kilometro asko egitea, tokiak ezagutzea eta aire garbia eta lasaitasuna arnastea baizik”, dio Urretabizkaia.

Orain Beasainen bizi denez, bertako mendietan ibiltzen da. “Usurbe, Lazkaomendi, lehengoan Ataungo Aiara joan nintzen... Orain arte 15 bat kilometro egiten nituen eta egun pixka bat gehiago ibiltzen naiz”. Bere lagunak nahiago du ordeka. “Beloki aldera joaten naiz normalean, aldapa handiak ez ditut gustuko”.

Donejakue Bidea egitea Urretabizkaia iritu zitzaien. “Jende askori entzun diot Bidea egin duela. Nire anaiak eta koinatak ere egin zuten. Eta nik zergatik ez?, pentsatu nuen. Prestatzen hasi nintzen, baina ez nekien bakarrik egitera ausartuko nintzen. Senarrak ez zuen egin nahi eta mendian bakarrik ibiltzen hasi nintzen. *Bakarrik nola joango zara?*, esaten zidan berak, baina neure burua prestatu nuen”.

Abiatu baino hilabete lehenago Zalduarekin hitz egin zuen bere asmoari buruz eta bere bizilaguna ere animatu



El Perdón mendatean, erromesei eskeinitako monumentuaren aurrean.

egin zen. “Kale berean bizi izan gara, baina sekula ez gara elkarrekin joan mendira. Etxekoei bidea berarekin egin behar nuela esan nienean, lasaitu egin ziren”.

Ordurako, bidaia oso ondo prestatua zuen. “Mapak erosi nituen bidean ez galtzeko, aterpetxeetan lo egiteko nola moldatuko nintzen ere ez nekien... Beldur handiena motxilari nioenez, hasieran lotsa pixka bat ematen zidan arren, 20 kiloko motxila bizkarrean hartuta entrenatu nintzen”. Zaldua ere sekula motxilarekin ibili gabea zen. “Bizkarrean eraman beharreko pisua da arazorik handiena. Entzun dudanez, ez da norberaren pisuaren %10a baino gehiago eramatea komeni. Ni pasatu egin nintzen, zortzi kilo eraman baintuen. Mari Carmenek, berriz, bost kilo bakarrik eraman zituen”, gehitu du

Zalduak. “Pisuaren kontua asko zaindu nuen. Eramandako guztia pisatu nuen: ahalik eta arropa arinena eramaten saiatu nintzen, dena kopuru txikietan eraman nuen...”, azaldu du.

Azkenean gizonezko bat ere elkartu zitzaizen: Mari Carmenen lehengusu bat. “Gure bikotekideak etxean utzita joan ginen, Hirurok adinean aurrera goaz eta gure arteko harremanak jendearen arreta pizten zuen. Batzuk galdetzera ausartu ziren, baina besteak pentsakor gelditzen ziren. Guk ezagutzen ez genuen jendea gure aurpegiarekin gelditu zen”, dio Zalduak. Euren moduko gutxi ikusten zirela diote. “Gehienak gizon taldeak edota bikoteak ziren”.

Denekin harreman ona izan zutela azpimarratu nahi dute. “Gure artean ez ezik, gainontzeko guztiekin ere asko hitz egin

genuen. Kataluniar batzuekin, adibidez, harreman oso estua egin genuen eta Santiagon elkar agurtu genuenean hunkitu ginenean: denok helburu berbera dugunez eta denok berbera sufritzen dugunez, ez da harrizkoa halakoak gertatzea”.

Izan ere, hilabete batean jendea ondo ezagutzera heldu daiteke. “Egunero 25 bat kilometro egin genituen. Egun batean, ordea, 36 egin genituen. Arazoa egunero horrenbeste kilometro egin beharra da. Horretarako gorputza ondo zaindu behar da. Egun batean sekulako kilometro pila egitea ez da komeni,

hurrengo goizerako gorputzak nahikoa atseden behar baitu. Hirugarren egunetik aurrera nekea pilatzen hasten da”.

Urretabizkaiak eta Zalduak Donejakue Bidea egitea merezi duela diote. Erromesen arteko harremana azpimarratu dute. “Eguzkitako betaurrekoak ahaztuta utzi nituen eta handik egun batzuetara beste erromes batek betaurreko batzuk topatu zituela eta jabearen bila ari zela esan zidan. Laguntasun horrek hunkitu egin ninduen”, azaldu du Arantxa Zalduak.

Bidea egiteko asmoa izan dezaketenentzat aholku batzuk eskatu dizkiegu.

“Burua apur bat prestatu behar da. Pazientzia pixka batekin hartu behar da eta indarrak gorde. Jendea ezagutzea eta giroaz gozatzea ezinbestekoa da. Bestalde, materiala oso kontuan izan behar da: etxean ditugun motxilak eta zapatilek balio duten ondo begiratu behar da. Motxila gerrian lotzeko modukoa izatea eta bizkarretik apur bat aparte edukitzea komeni da, adibidez. Bestalde, ohera sartu aurretik hanketan krema eman behar da eta ondo jan behar da. Guk ondo gosaltzen genuen, bidean ogitartekoa jaten genuen, gero erromesaren menua bazkaltzen genuen

Zorionak eta urte berri on!!

2010ean ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.



 **SASIETA**
MANKOMUNITATEA

Lehiaketa berezia!

Sasieta egutegiak 10 urte bete ditu. Hori ospatzeko **lehiaketa berezia** prestatu dugu. Aurtan 4 hilabetetako marrazkiak gaizki daude. Zaborrak nahastu ditugu eta horrela ez dago birziklatzerik. 500 mantal zotz egingo ditugu. Zehastasun gehiago gure web orrian: www.sasieta.net

hilabete honetako gaia

eta arin afaltzen genuen. 21.30etarako ohean geunden eta 7.00etan abiatzen ginen”.

Zumarragako bi emakume hauek 30 egunetan osatu zuten bidea, baina 40 egunetan egiteagatik ez dela ezer gertatzen diote. “Jendearekin hitz egiten gelditzeak merezi du. Emakume bati laguntzeko aukera izan nuenean, adibidez, erromesa sentitu nintzen bete-betean. Bestalde, Santiagora heldu ginenean bi esloveniari gu zorientzera etorri ziren. Dagoeneko ez ginen beraietaz gogoratzen, baina inpresio ona utzi genien nonbait. Jendearen artean sortzen den harremana da onena. Egun osoan naturaz gozatzea eta herri txikiak ezagutzea ere sekulakoa da”, dio Urretabizkaiak.

Bere laguna iritzi berekoa da. Hala, bide osoa egiteko asmoa ez zuen arren, bukaeraraino jarraitzea erabaki zuen. “Etxera itzuli beharra nuen, baina bigarren edo hirugarren egunean dagoeneko gelditzearen aldekoa nintzen: *horren ondo egonda, nola itzuliko naiz?*, esaten nion neure buruari. Gainera, nork lagunduko zidan hurrengoan bigarren erdialdea egiten? Etxekoek jarraitzeko aholkatzea behar nuen eta hori egin zuten”, azaldu du. Mari Carmen Urretabizkaiak ere animatu egin zuen. “Oso gustura geunden eta jarraitzera animatu nuen. Utzi izan balu, pena handia hartu izango nuen”.

Dena den, hasieran etxekoek ez zituzten aintzat hartu. “Senarrak ez zuen uste serio ari nintzenik, baina gogor entrenatzen ikusi ninduean animatu egin ninduen”, dio Urretabizkaiak. Zalduari berbera gertatu zitzaion. “*A ze ateraldia!*, esan zidan hasieran senarrak. Gero sinistu

Hiru erromesak Santiagoko Obradoiro plazan.



zidan, Beloki aldera motxilan babarrunak eta garbantzuak sartuta joaten nintzela ikusi zuenean”. Herrira itzuli zirenean, etxekoak zain zituzten. “Senarra oso pozik zegoen. Oso ausartak izan ginela esan zigun”. Bere lagunari senarrak eta semeek loreak oparitu zizkieten. “Urtebetetze eguna Santiagora bidean ospatu nuen eta itzuli nintzenean loreak zain nituen. Etxekoak oso harro daude gutaz”, aipatu du.

Etxeko ohea gustura hartu zuten, baina Santiagora heldu zirenean tristura apur bat ere sentitu zutela aitortzen dute. “Sentimendu kontrajarriak dira: helburua bete genuelako pozik geunden, baina bidaiak bukatu zelako pena sentitu genuen. Elizara sartu nintzenean hunkitu egin nintzen, baina ez nuen gozatu. Hurrengo egunean gozatu nuen, Finisterrera joan ginenean”, aitortu du Urretabizkaiak.

Donejakue Bidean gozamina eta sufri-mendua denentzat dira, ez dago emakumezko eta gizonezkoen arteko alde-

rik. Dena den, bakoitzak bere ukitua ematen dio erromesaldiari. Asko zarpail hutsak eginda heltzen dira Obradoiro plazara, baina Zumarragako bi emakumeek ez zuten itxura hori eman nahi. “Azken gaua Santiagotik hamar kilometro eskasera pasatu genuen, ostatu batean. Aurreko egunetako ordu berean jaiki ginenez, Santiagora goiz heldu ginen: fresko-fresko eta dotore”.

Halako oroitzapen ona izanda, ez da harriztekoa errepikatu nahia. “Jerusalemera joango ginela esan genuen txantxetan. Hara ere batzuk oinez joaten dira, e!”, dio Arantxa Zalduak. Bere lagunak argi du Donejakue Bidea berriro egingo duela. “Ez dakit noiz, baina egingo dut”. Oinez 700 kilometro baino gehiago egin ondoren sasoian itzuli ziren eta, hala, ez da harriztekoa erronka berrien beldur ez izatea. “Sekula baino indartsuago itzuli nintzen”, dio Urretabizkaiak. “Jendeak zenbat argaldu ginen galdetzen zigun, baina ez ginen argaldu: primeran jaten

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
óptica

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

BIONA

ARROZTEGIA
Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 baxua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

ALEX-BIBOLAK

alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Lanbrea

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

HERCE
Enkarguak, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

natural optics
URRETXU

Lurdes Rodriguez
Optiko-optometrista

Iparagirre, 1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINITZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

ALTZARIAK
MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9 Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@mendiola.com
www.cmendiola.com

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

belarzoim

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta

Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria

Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

‘Tokikom’: tokiko aldizkariak hobetzeko tresna

Tokiko aldizkarietako batzuk aurrerapauso garrantzitsua aurkezten ari dira: elkarlana eta talde izaera azpimarratzera datorren TOKIKOM marka bateratua. Topagunea euskara elkarteen federazioan bazkide diren 36 tokiko aldizkarietatik, 20k sortu dute TOKIKOM (tartean Otamotzek). Federazioko Hedabide sailko ordezkariekin hitz egin dugu ekimenaren nondik norakoak ezagutzeko. Eñaut Agirre (Hernaniko Kronika), Eneko Azkarate (Goienkaria), Xabier Goienetxe (Aikor!), Jasone Mendizabal (Topagunea), Koldo Mitxelena (...eta kitto!) eta Joxe Rojas (Topagunea).

Zer da TOKIKOM?

E. Azkarate.- Topagunean gauden euskarazko hedabide lokalok osatzen dugu TOKIKOM. Oinarrian, marka bat da, euskarazko tokiko hedabideok eta gure ezaugarri eta balio komunak batzen dituen.

J. Rojas.- Topagunean ditugun azken datuek argi erakusten dute tokiko aldizkariak hedabiderik indartsuenak direla bakoitza bere esparruan. Baina hortik kanpo, hedabide bakoitza ezezaguna da bere mugetatik kanpo. TOKIKOMen asmoa hedabideon talde izaera eta kohe-sioa indartzea da, barrura zein kanpora begira. Tokiko hedabideen sektorea irudikatzen duen ikurra da TOKIKOM.

Noizko Topaguneako hedabide guztiak

TOKIKOMen barruan?

J. Mendizabal.- Tokiko hedabideen artean aniztasuna da nagusi, baita indar eta baliabideei dagokionez ere. Horren arabera, bazkideetako batzuek euren egoera finkatzeari begirako lehentasunak ezarri dituzte, eta TOKIKOMen sartu ala ez aurrerago erabakiko dute. Lehen momentutik aniztasun hori errespetatu nahi izan dugu marka berriarekin bat egiteko orduan ere. Seguru gaude epe ertainera hedabide bazkide guztiak egongo direla TOKIKOMen barruan, baina argi dugu bakoitzak bere erritmoan egin beharreko zerbait da, ezin dugu inor behartu.

Zergatik eta zertarako sortu duzue?

E. Azkarate.- Jasonek esan duenez, Topaguneko euskarazko hedabideok ani-

tzak gara, maiztasunari, formatuari eta itxurari dagokionean; anitzak, era berean, askotariko iritziak jorratzen ditugulako, askotarikoak direlako gure irakurle eta ikus-entzuleak.

Baina badira guztiok komunean dauzkagun ezaugarriak: hurbileko informazioa lantzen dugu, gai orotarikoak; masiboak gara, hau da, populazio osoarendako lantzen dugu informazioa; liderrak gara gure esparruan eta tokian tokiko hedabide guztien baturak bihurtzen gaitu era berean lider (irakurrienak, ikusienak...) euskarazko hedabideen artean ez ezik, Euskal Herriko edozein hedabideren artean.

X. Goienetxe.- Ezaugarri komun horiek azpimarratzea eta indartzea da kontua. Aniztasunari uko egin gabe, talde izaera

ere badugula gizarteratzea. Eibarko lagun bat beste edozein herritara joan eta bertako aldizkaria aurkitzen duenean, horrek bere herrikoarekin zerikusia duela jakin dezan. Eta elkarlanerako kanalak irekitzea ere bai, noski. Zenbait arlotako informazioa partekatzea eta, zergatik ez, guztio batuta 220.000 irakurle baino gehiago izateak ematen digun indarra hobeto baliatzea ere bada gure helburua.

Zer eskaintzen dio TOKIKOMek irakurleari, orain arte jasotzen ez zuena? Eta aldizkariei?

J. Rojas.- Hasteko, webgunea aipatu behar da. Hor irakurleak TOKIKOMeko aldizkari guztien titularrak jaso ahal izango ditu zuzenean, eta gehiago sakondu nahi izanez gero, jatorrizko iturrira, tokiko aldizkariaren webgunera eramango du webguneak. Gainera, RSS teknologia aprobetxatuz oso erraza da titular horien harpidedun egin eta albisteak hamaika formatu eta euskarri diferentetan jasotzea. Euskarazko tokiko informazio guztia begi kolpe batean ikusteko aukera eskaintzen dugu tokikom.com-en bidez.

E. Azkarate.- Paperezko produktuei dagokienez, berriz, aldaketa gutxi igarriko dute irakurleek oraingo. Hedabide bakoitzak jarraituko du izaten, euren nagusi, irakurrien, gertuko, hurbilekoen... Aurrera begira, denondako berdina izan daitezkeen edukiak ekoiztu eta hedabide bakoitzean txerta daiteke, informazio lokalaz gain, beste era batekoa ere eskaintzeko: Arrasate, Durango, Altsasu edo Tolosako irakurleak gustura jasoko duena. Aldizkariei, berriz, baliabide gehiago emango die besteen ibilbidea ezagutzeko, informazioa elkarrekin

trukatzeko, gabeziak betetzeko, lan poltsa sortzeko eta publizitatea lortzeko orain arte eskurazina zen lekuetan edota enpresetan. Publizitatea egin nahi duenarendako, aparteko euskarria da, mezua jende gehienengana heltzeko bidea. Tokikomen publizitatea kontratatzen duenak, aukera du hedabide askotan agertzeko eta inbertsio eraginkor eta errentagarriena egiteko, zabalkunderik handiena izango duelako.

Elkarrekin indar handia duzuela diozue. Zer esan nahi duzue horrekin?

“Publizitatea taldeka eskainiz gero, beste indar posizio batetik hitz egin dezakegu: 220.000 irakurletik gora ditugu”

E. Agirre.- Lehen aipatu dutenez, TOKIKOMen gauden hedabideak oso indartsuak gara bakoitza bere esparruan. Beste edozein hedabide baino irismen handiagoa dugu, eta publikoak gurekiko atxikimendu handia du. Baina norberaren esparrutik kanpo ez gara ezer: *Goienkariaren* irakurle batek ez daki *Hernaniko Kronika* zer den. Horrek balioa kentzen digu, esate baterako, iragarle handiengana jotzeko orduan. Enpresa handi batentzat, gutako bakoitza ez da ezer. Baina publizitatea taldeka eskainiz gero, beste indar posizio batetik hitz egin dezakegu. 220.000 irakurletik gora ditugu guztien artean, eta horrek indar handia

ematen digu. Iragarle handiak erakarrit, diru-sarrerak eta gure eragina ere handitzea espero dugu.

K. Mitxelena.- Eta horrek, gainera, produktuak hobetzeko aukera emango digu. Elkarlanean arituta, Enekok esan duen moduan, produktu osagarri komunak atera ditzakegu, umeentzako gehigarriak, denborapasak, zer dakit nik! Gainera, barne antolakuntza eraginkorragoa egiten ere lagunduko digu: taldean arituz gero, gaur egun aldizkari guztietan egiten diren lan errepikatuak ekidin ditzakegu, eta gure baliabideak gauza berriak edota hobeak egitera bideratu.

Zer produktu edo zerbitzu zehatzetan ikusiko da TOKIKOMen ekarpena?

K. Mitxelena.- Aldaketarik agerikoena TOKIKOM ikurra bera da, kide diren hedabideen buruetan agertuko da: man-txetetan... Bestalde, esan dugunez, webgune bat izango dugu: Tokikom.com, non bisitatu ahal izango dira tokian tokiko hedabideek lantzen dituzten albisteak. Horretaz gain, publizitate eskaintza bateratua egin ahal izango dugu eta iragarle handiei eskainiko zaie euskarri ezin hobea helarazteko mezua ahalik eta jende gehiagorengana. Ez hori bakarrik: iragarleak aukeratu ahal izango du non jarri nahi duen bere mezua: hedabide guztietan edo komeni zaionetan: herri batean, eskualde batean, lurralde batean...


E. Azkarate.- Horrez gain, gaur egun aldizkari askok egiten dituzte tokikotasunarekin zuzenean zerikusi txikia duten produktuak: haurrentzako gehigarriak, liburuak eta bestelako argitalpenak. Epe ertainera, TOKIKOMek aukera emango digu horrelako produktuen ekoizpena optimizatu eta zabalkunde aldizkari gehiago-



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Torero, torero!!!



Koadrilan zalantzak genituen mugaz bestaldetik etorritako alkatearen etorkizunaren inguruan. Tabernetan horren modan jarri diren makineta ere jartzekoak omen dira horren inguruko apustuak. Gutxien ordaintzen direnak, Zumarragako tranpolina utzi eta eskalafioan gora egingo duenaren teoriaren ingurukoak dira, baina inork benetan pobre izateari utzi eta bizitza konpondu nahi badu, hobe luke guri kasu egin eta hemendik urte gutxira, El Juli eta enparauekin traje distiratsu estua jantzita ikusiko dugunaren alde egitea.

Nola ulertu bestela Antioko Interpretazio zentroarekin –inork ba al daki zehazki izen moderno eta cool horren atzean zer ezkututzen den?– herritarren gehiengoari egiten ari den chicuelina saioa? Izan ere, gaiari inplikatuuegiak egon ez garen arren, plazan aldetik aldera zapi baten atzetik desesperatuta dabilen zezena bezala ikusten dugu Zumarragako herria, lantzean behin pikado-

rearen eta banderileroaren eztenkada mingarriak jasoz gainera.

Hasieratik Elizalde egokitzearen aldekoak izan gara, Izazpitik bueltan mokadutxoa egin eta Santa Isabel egunean trago batzuk hartzeko nahikoa, baita kanpotik etorri ahal diren bisitariak jasotzeko ere. Show-a primerakoa.

Camaseko faraoia plazara; proiektu megalitikoaren aurkezpena, ole! Herria kolpearen aurka altxatzen denean, galeriarako keinua! Elkarlanerako deia. Lehiaketa publikoarekin zapi zuriak airera, lasaitasuna eta belarri eskaerak, Ole!, ole! eta ole! Estokada, amaierarako, adostutakoa irentsi, bere gusturako proiektua osatu eta erabaki honen kontrako elkarretaratze masiboa baino bi ordu lehenago prentsaurrekoa subalterno berezi xamarrez inguratua. Ole maestro. Bien bitartean, urte mordoxka pasatu den arren, egurrezko etxetxoa errezutenean bezala jarraitzen dugu.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala jarraitu al zenuen?



Julen Zubillaga



Finala ikusi nuen. Tarteka, baina ikusi nuen. Ez naiz bertsozale amorratua, baina bertsolaritza gustatzen zait. Finalak maila ona eduki zuela uste dut. Nire favorittoa? Aitor Sarriegik irabaztea nahi nuen, nire irakaslea baita. Hala ere, Maialenek irabazita, ni pozik.

Aitor de Juan



Ez nuen bertsolari finala jarraitu, Ederrenara joan bainintzen pilota partidak ikustera. Gainera, ez naiz oso bertsozalea. Badakit Egaña txapelkun ohiaz gain Amets Arzalluz eta Maialen Lujanbio zirela favorittoa, baina hortik aurrera...

Maria Jordana



Normalean ez ditut bertso saioak jarraitzen, baina horrelako ekitaldi bereziek nire arreta pizten dute. Nire euskara maila ez da oso ona, baina zer edo zer ulertzen diet eta jarduera polita da. Lujanbioren garaipenak pozten nau. Irratian elkarrizketa egin zioten eta emakume kastaduna iruditu zitzaidan.

Mari Mendoza



Finalaren egunean, Santa Lutzi eguna zenez, taberna lepo zegoen. Jendea musikarekin dantza egiten ari zen, baina Jon Maia telebistan azaldu zenean musika kendu genuen. Bukatu bitartean, bertsoak entzun genituen. Jendea adi-adi egon zen. Sekulako jendetza zegoen BEC-ean. 15.000? Harrigarria!

Gaia: Bizitzaren bila

Doinua: Abokatuak deitu berri dit

Jone Alberdi




Hamasei urteko gazte batek
sabel barruan narama,
ziurrenik ni eramateak
ematen diola lana.
Sei hilabete igaro dira
laster izango da ama
eta jada amesten hasi naiz
ikusiaz iragana,
aprobetxatu nahiko nituzke
minutuak banan bana,
mundua arrosa izatea
da nik espero dudana (bis)

Lehen unetik edukiko dut
famiaren babesa
horrela aurrera egitea
seguru dela erreza.
Neska gazte hau ez da izango
ama alfer ta traketsa,
kanpoan denek onartu naute
eman didate baietza,
mundura azkar irten nahi nuke
bizitzeko daukat presa,
zoriontsu bizi izatea
da nik daukadan ametsa (bis)

Aita hemezortzi urtekoa
hau ere gazte samarra,
halere aurrera jarraitzeko
izan du berak indarra.
Gainera dio berarentzako
ez dela albiste txarra,
nire bizitza dela berari
inporta zaion bakarra,
ikusitako nahi dituela nire
barre, oihu ta negarra,
jaiotakoan gurasoentzat
doa lehen irrifarra (bis)

iritziz iritzi


Gotzon Aranburu



Sinatu gabeko iritzia, kaka

Garai batean kontu serioa zen hedabideetan iritzia ematea. Eta iritzi hori kontuan izateko, ezinbestekoa zen emailearen nortasuna ezagutzea. Duela hogeitau urte goitizenak ugariak ziren prentsan ukitzen ziren gaiak arriskutsuak zirelako edo, baina hedabideetako arduradunak konturatu ziren halako batean sinatu gabeko iritzia balore gutxi zeukala. Sinadura eskatzen hasi ziren, idatzia argitaratuko bazen; askok gaizki hartu zuten erabaki hori, eta adierazpen askatasunaren kontrakoa zela argudiatzera ere iritsi ziren, baina poliki-poliki guztiek onartu zuten idatzitakoaren ardura hartu beharra zegoela. Atzera pausoa eman dugu berriro. Interneteko foroak direla eta, izugarri ugari dira iritzi emaile anonimoak, batzuk asmo onez

eta beste batzuk pozoia zabaltzeko prest, baina ia denak benetako izena eman gabe. Eta iritzi horiek niretzat, bederen, ez dira balekoak; esaten duenari kasu egiteko, nik jakin beharra daukat nork esan duen. Sinadura ikusita erabakiko dut zer sinesgarritasun eman, baina nik sinetsi edo ez, iritzi emailea garbi jokatzen ariko da behintzat, eta zailagoa izango da gure herrian gertatutako moduko lintxamenduak gertatzea. Salagarria da pedofilia bezalako gai larriekin arinkeria aritzea interneteko foroetan ezkutatuta; akusatuen izena ezaguna den bezalaxe, publikoki haiei buruzko iritzia ematen dutenena ere ezaguna izan behar da. Alferrik da, Tenerifeko gizonari gertatu zaion bezala, atzetik barkamen eske joatea.



Musika airean

Karmele Jaio

Musika Airean Karmele Jaioren (Gasteiz, 1970) bigarren eleberria da eta lehenengotan bezala, barneko bizitzak, pentsamendu eta oroimenek pisu handia dute. Iraganak eta orainak behin eta berriro egiten dute topo, irakurlea istorioan zehar era oso egokian gidatuz. Elena, emakume edadetua da eta bere etxera Beatriz ekuatoriar gaztea iristen da. Bata eta bestearen bizitza, atzokoa eta gaurkoa, etsipena eta itxaropena,

eta bertakoa eta kanpokoa lotzen doaz poliki poliki; musika ere protagonista duen kontakizun batean. Bata bestearekin ez dute zerikusirik, baina hori ez da aitzakia izango bi momentuen arteko zubia eraikitzeko. Irakurleak erraz koka dezake bere burua leihotik ikusten den plazan, egongelan eta bi eszenatoki hauetan jaiotzen den gertakizunetan Jaioren deskribapenei esker.

Idoia Luzuriaga

El manifiesto desastre

Nacho Vegas

Onean, bizitzak desiratutako bidea hartzen duenean, gozatu egiten du. Bide horiek okertzean, berriz, sufrikarioak barruak-jaten dizkio. Hori dirudi Nacho Vegasen abestiak entzunda. Entzunaldi bat baino gehiago behar duten arren, zuzen-zuzenean barrura iristen direnak. Manta Ray talde estimatua abiarazi zuen, eta arrakastaren bidetik ibili ondoren. Liderra gelditu egin zen, ordea, eta bakarrik jarraitzea erabaki. Disko dezente

egin ditu azken hamarkadan eta molde berriekin saiatu da. Rocka, pop eta folka nahasten ditu maisuki eta oholtza gainetik indar berezi eta sentikorra dario haren proposamenari. Zuzenekoetan oilo ipurditu egiten ditu bildutakoen azalak, eta hori ez da gutxi. Willd Oldham, Leonard Cohen, Tom Waits, Nick Drake edo Joaquin Sabinaren eragina dauka haren musikak. Eta egia da.

Igor Susaeta



2009an ikusitako 10 film onenak

Urteko garai honetan zer aproposagorik urtearen ebaluazioa egitea baino. Hor doaz ba 2009an nire gustokoenak izandakoak. *Up*: Animazio dibertigarria eta hunkigarria. *Déjame entrar*: Gaztetxoaren arteko maitasun istorio bitxi eta bikaina. *Arrástrame al infierno*: Beldurrezko film petoa, umore puntu batekin. *El secreto de sus ojos*: Zinemaldiko onena. *Still walking*: Familiara zuzenduriko begirada gupidagabea. *El*

luchador: Galtzaile bihurtu den irabazlearen historia. *Gran Torino*: Handia izatean zu bezalakoa izan nahi dut Clint! *La clase*: Gizarteari begirada zabala ikastetxe batean begirada ipiniz. *Los mundos de Coraline*: Ipuin ikusgarria ispiluaren beste aldetik kontatua. *Ponyo en el acantilado*: Inoiz izan den animaziogile handienak beti asmatzen du.

Julen Arakama



▼
Urbasako bazter ezkutuak.

Jose Luis Garmendia



Juan Mari Garitano: Zumarragako udaletxetik, Donostiako Antiguara

Juan Mari Garitano Zumarragako alkate izan zen 1983tik 1987ra. Egun, berriz, Nagusilan elkarteko eta jaki-bankuko presidentea da. Aspalditik Donostian bizi da, baina ez du herria ahaztu eta oraindik lagun asko ditu bertan.

Juan Mari Garitano, Nagusilaren elkartearen Donostiako egoitzan.



Elgoibarren jaio zinen.

Hala da. Zazpi urte nituenean joan ginen Zumarragara. Aitak Aparizion lan egiten zuen eta horregatik joan ginen. Dena den, nire familia bergararra da gehienbat. Aita zena Bergaran jaio zen eta lau aitona-amonak bergararrak ziren. Baina amaren aitak Elgoibarren lan egiten zuen eta, ama alaba bakarra zenez, ezkondu zirenean gurasoak bertan jarri ziren bizitzen. Hiru anaia-arreba ginen. Laugarrena txikia zela hil zen.

Elgoibarren bizi izanik, nolatan hasi zen zure aita Aparizion lanean?

Elgoibarren tailer txiki bat zuen beste batzuekin batera. Urte txarrak izan ziren eta behea jo zuen. Bere lehengusu batzuk Urretxun bizi ziren eta haien bidez Aparizion lana eskaini zioten. Ama, berriz, etxeandrea zen. Brodatze lanak ere egiten zituen txanponen bat ateratzeko.

Zer esango zenuke zure gurasoei buruz?

Jende langilea eta zintzoa zen. Gerra ondorengo urteak txarrak izan ziren,

baina oroitzapen onak ditut.

Gerra gogoratzen al duzu?

Elgoibarren, herritik Maltzaga aldera bizi ginen. Bertan Kalamuako frontea izan zen eta gure etxe inguruan Nazionalen destakamentu bat egon zen. Gure etxera etortzen ziren eta hilabete haietan bizimodu arraroa egin genuen. Zumarragara joan ginenean sekulako aldaketa nabaritu genuen: frontetik urrutiago geunden eta beste giro bat nabari zen. Nazionalen aurkako haizea zegoen: bizilagunak, La Salle ikastetxeko lagunak... gehienak euren aurkakoak ziren. Bestalde, Zumarragako euskara eta Elgoibarkoa ezberdinak dira. Dena arraroa iruditzen zitzaigun, baina berehala moldatu ginen.

Nola gogoratzen dituzu ikasle garaiak?

Ondo. Beti ondo ibili nintzen. Ni baino zaharragoekin jarri ninduten. La Salletik irten nintzenean Madayan lanean hasi nintzen eta gero merkataritza-ikasketak egin nituen. Maisutzan ere matrikulatu nintzen, baina ez nuen egin.

Ikasle ona zinen, beraz.

Erraztasuna nuen.

Nola oroitzen duzu gaztaroa?

Oso garai ona izan zen. Koadrilan 20 inguru ginen. Futbolean egiten genuen, besteak beste. Garai hartan diru gutxi genuen, baina noizean behin Donostiara joaten ginen futbol partidak ikustera. Beasainera, Bergarara, Azkoitira, Azpeitira... ere joaten ginen.

Nola ezagutu zenuen emaztea?

Elgoibarren bizi zen. Zazpi urterekin irten nintzen Elgoibartik eta 1948an joan nintzen lehenengoz San Bartolome jaietara. Orduan ezagutu genuen elkar. 1954an ezkondu egin ginen eta Zumarragara etorri zen.

Nondik nora ibili zinen lanean?

1944an Madayan hasi nintzen eta 11 urte eman nituen bertan. Gero, Gonzalez anaien Agrymin enpresan hasi nintzen. Urretxuko eliza atzean zuten lokala. Bi urte eman nituen bertan. Ondoren, geure kontura hasi ginen, komertzial modura, Comercial Gari izenarekin. 1957an, berriz, Ayma sortu genuen. Hasieran altzairuarekin lan egiten genuen eta gero erremintekin hasi ginen. Zuzendaria nintzen eta antolaketaz arduratzen nintzen batez ere.

Bertan erretiratu al zinen?

Hala da. 1992an utzi nuen lana, osasun arazoak medio.

Zumarragan lan egin zenuen. Zergatik etorri zinen Donostiara bizitzera?

1970ean etorri ginen. Sei seme-alaba

“Eusko Kontseilu

Nagusiko Osasun

sailburuak ospitalea

aurrera ateratzeko

zeregina eman zidan”

nituen eta hiruk Donostia inguruan ikasten zuten. Hori dela eta, hona etortzea erabaki genuen: erosoagoa eta merkeagoa zen. Sarritan astelehen goizean Zumarragara joaten nintzen eta larunbatean Donostiara itzultzen nintzen. Batzuetan emazteak Donostian ematen zuen astea eta beste batzuetan Zumarragan. Dena den, lanak agintzen zuen. Ayma zabaltzen joan zen eta

bidaiatzea tokatzen zen: Zumarragako Urola kalean hasi ginen eta gero Gasteizen, Bilbon, Madrilan, Zaragozan, Gijonen, Sevillan... bulegoak ireki genituen. Urtean 50.000 kilometro egiten nituen autoarekin eta trenean eta hegazkinean ibiltzea ere tokatzen zitzaidan. Garai batean 140 langile inguru izan genituen eta egun 70 bat dira.

1983tik 1987ra bitartean Zumarragako alkate izan zinen. Nolatan?

Lehenago, 1981etik 1983ra, Aldundian izan nintzen. EAJko kidea nintzen, baina sekula ez naiz afiliatua izan. Ez dut gogoratzen nor eskatu zidan alkatetzarako hautagai izatea. Bestalde, 1978tik 1979ra bitarteko behin-behineko korporazioan alkateorde izan nintzen.

1979tik 1983ra alkate izan zen Jose Luis Ruizek asko lagundu zeniola esaten du.

Ospitalea aurrera ateratzeko buru-belarri lan egin nuen. Aste berean Madrilera bi aldiz joan nintzela oroitzen dut. Eusko Kontseilu Nagusiko Osasun sailburuak zeregin hori eman zidan. Dena den, Urrestilla alkate izan zen tartean eman genion hasiera kontu horri: lurra erosi genuen eta Instituto Nacional de Previsión delakoari eman genion. Egunguztia Donostiako Pio XII kalean ematen nuen, egun Osakidetzaren egoitza den tokian. Zumarragako ospitalea aurrera ateratzeko makina bat lan egin genuen eta, entzun dudanez, ondo dabil. Alferrikako lana ez zela izan ikus-teak poza ematen dit.

Nolakoa izan zen alkate izan zineneko legealdia?

Alderdi guztiok ondo moldatu ginen. Hasieratik esan nien kalean bakoitza

Juan Mari Garitano 1950ean.



nahi zuen modukoa izan zitekeela, baina udaletxe barruan ez zegoela kolorerik: denok Zumarragan bakarrik pentsatu behar genuela. Denek ondo erantzuten zutela iruditzen zait. Oso harreman ona izan nuen denekin eta lan asko egin genuen. Denekin hitz egiten nuen eta udalbatzetara dena adostuta eramaten saiatzen nintzen. Talde polita genuen: Jesus Iturbe, Jose Mari Agirrebeña... Anton Arbulu berak garai hartan eman zituen lehen urratsak udaletxean. Nire ikasleak izan ziren eta lan asko egin zuten.

Zeintzuk izan ziren egiteko nagusiak?

Erretiratuek Legazpi kalean lokal kaxkar bat zuten eta egungo egoitzara eraman genituen. Bestalde, udaletxea berritu genuen. Gainera, kiroldegia eraikuntza abian jarri genuen. Lau urte horietan batzarkide ere izan nintzen.

Zergatik utzi zenuen Udala?

Osasun arazoengatik eta, egia esan, EAJ eta EAren arteko iskanbilerik amorrua eman zidatelako. Denen laguna nintzen eta nahigabe handia hartu nuen. Gipuzkoako Foru Aldundira Aizarnarekin joan nintzen eta berak EAren aldeko hautua hartu zuenez, nik ere bai. Dena den, pertsonalismo kontuak ziren: dozena erdi lagun kalera bota izan balituzte, alderdia ez zen apurto izango.

Erretiratu zinenetik gizarte arlotan lan egin duzu. Nagusilan elkartearen sortzaileetako bat zara.

Sei hilabete-edo ezer egin gabe eman nituen: gauean ordu biak inguruan joaten nintzen ohera, irratia entzuten, telebista ikusten... Baina nagusien esparruan hutsune handia zegoen eta zer edo zer egin beharra ikusi genuen. 1995ean Nagusilan

sortu genuen. Horretarako, Iparramerikako elkarte baten antolaketan oinarritu ginen.

Bizitza aktiboaren eta elkartasunaren aldekoa zara.

Gaizki dagoenari laguntzen saiatzen naiz. Gaztetatik dut joera hori, baina lanean nengoen bitartean ez nuen horretarako asti handirik. Egun guztia libre izatea lortu nuenean horretara dedikatzeak merezi zuela pentsatu nuen. Nagusilan 14 lagunek sortu genuen. Gipuzkoan hasi ginen eta gero Bizkaian. Ondoren Araba, Granada, Zaragoza, Madrid... heldu ziren. Estatu osora zabaltzeko asmoa dugu, baina horretarako denbora eta dirua behar da. Egun 1.400 lagun gara. Gehienok gipuzkoarrak gara: 760. Hemen ondo gaude: mila biztanletik bat Nagusilaneko kidea da.

Gipuzkoako herri ia guztietara helduko zineten, orduan.

Herri nagusi gehienetan gaude. Tolosa eta Hernani falta zaizkigu. Azkoitia orain hasi gara. Dena den, Jose Mari Soroa, gure artista, nagusien egoitza guztietara joaten da gitarra jotzera eta abestera. Bestalde, duela bederatzita urte *Zilarrezko Zenbakia* abian jarri genuen. Bakarrik dauden nagusiek telefono batera deitu dezakete doan beste aldean dagoenarekin hitz egiteko. Duela urtebete Madrilen ere martxan jarri genuen, Espainia guztirako. Hilean 800 elkarrizketa eskaintzen ditugu. Bide onetik goazela uste dut, baina diru aldetik larri samar ibiltzen gara eta aurreko kanpainaren bat egin beharko dugu idia gurdiaren aurretik jartzeko.

Zuen helburua adineko jendearen bakardadearekin bukatzea da.

Hori da: bakartasuna apurto nahi dugu.



Juan Mari Garitano (eskuinean) eta bere emaztea (erdian), 1985ean Zumarragako Udalak Jose Maria Busca Isusiri eskaini zion omenaldian.

Arazorik larriena hori da. Batzuk bakarrik bizi dira, besteek eguna bakarrik ematen dute etxekoek egun osoa etxetik kanpo lanean ematen dutelako... Bestalde, egoitzetara ere joaten gara: horiek oinarrizko behar guztiak aseta dituzte, baina batzuetan bakardadea sentitzen dute. Han lan egiten duen jendea eurekin ondo portatzen da, baina agureek "horretarako daude, horretarako ordaintzen diegu..." pentsatzeko joera dute. Ezer kobratzen ez dugunok ere eurekin hitz egin nahi dugula ikustea pozzgarria da eurentzat.

Nolako jendea aurkitzen duzue?

Batzuk triste antzean egoten dira. Seme-alabak aurrera atera ondoren euren arreta jasotzen ez dutenak dira gehien sufritzen dutenak. Gure soldata euren irribarrea da. Bakardadea gaitzik beltzena eta hotzena da. Urteko garai honetan eguraldi txarra egiten du eta

bakarrik bizi diren askok egun osoa etxean ematen dute, semea edo alaba bisitan noiz joango zaien zain. Egoitzetan ez daude bakarrik, baina askok ez dute motibaziorik: egin beharrekoa egin dutela uste dute, ez diote

*“Seme-alabak aurrera
atera ondoren euren
arreta jasotzen ez duten
adinekoak dira gehien
sufritzen dutenak”*

elkarri begiratzen, ez dute elkarrekin hitz egiten... Gure helburua euren animua jasotzea da. Donostian alargun gelditu zen baten kasua gogoratzen dut:

inongo ilusiorik ez zuela esaten zigun eta ez zuen bere itxura batere zaintzen. Beti triste zegoen. Poliki-poliki hobeto jantzen eta bizarra hobeto kentzen hasi zen. Azkenerako, gu heldu orduko kartak eta tapetea prest zituen! Ilusioa berreskuratu zuen eta hori da guk nahi duguna. Irakurtzeko zaletasuna duenari, adibidez, liburuak eramaten dizkiogu. Batek betidanik komunista zela esan zigun eta komunismoari buruzko aldizkariak eramaten genizkion.

Donostiako Antigu Berri auzoan egoitza polita duzue,

Udalak utzi digu 75 urterako eta Aldundiak egokitu zuen. Altzariak Kutxak ordaindu zituen. Baten eta bestearen laguntzarekin, moldatzen gara. Bi langile ere baditugu.

Jaki-bankuko presidentea ere bazara.

Hura Bilbon sortu zen hemen baino lehenago. Hango lehendakaria hona etorri zen elkarte Gipuzkoan martxan jartzeko asmoz eta Luis Mari Bandres Ongizate diputatuarekin hitz egin zuen. Bandresek Nagusilanera etortzeko esan zion, guk lagunduko geniola. Arrasate kalean hasi ginen eta gero Oiartzunera joan ziren.

Zer lan egiten duzue?

Bulegoan hiruzpalau boluntario eta langile batek lan egiten dute. Bi furgoneta ditugu, hozkailu eta guzti. Horri esker, aurten jaki galkorrekin ere hasi gara. Ordura arte ontziraturakoeekin bakarrik lan egiten genuen. Bertako enpresek janaria ematen digute eta guk behar duen jendeari banatzen diogu, Udalen bitartez. Udaletako Ongizate sailek erabakitzen dute nori eman. Urretxun, adibidez, plazako harmaila azpian banatzen dugu janaria.

Urte asko daramatzazu gizarte arloan lanean. Nola ikusten duzu gizartea?

Geroz eta hobeto ikusten düt. Gaizki daudela esaten dugu beti, baina nire ustez geroz eta argiago dugu denok elkarrekin eta besotik helduta bizi behar dugula. Itxaropena dut. Baikorra izan naiz beti eta hil arte hala jarraitu nahi dut. Datozen urteak hobeak izango direla uste dut. Krisi hau ere joango da, aurrekoak joan ziren bezala. Ni historia-ko krisi handienaren urtean jaio nintzen: 1929an. Orain garai hartan baino baliabide gehiago ditugu. Hirugarren Munduko arazoa beste kontu bat da. Hori ere zuzendu beharra dago, baina gu etxeko gauzetan sartuta gabilta.

Estatuko Adinekoen Kontseiluko kidea ere bazara.

Orain bukatuko dut lan horrekin. 2005etik 2009ra egon naiz. Imsersoren nondik norakoaz arduratzen gara. Nire ustez Kontseiluak lan handia egin dezake eta indarra hartuko du. Oinarri zabaldu, udaletan, eskualdeetan, herrialdeetan eta erkidegoetan ere kontseiluak baitaude.

Gizarteak adineko jendea errespetatzen al du?

Orain arte estereotipo asko egon dira. Makurtuta, makilarekin, indar gabe, traba egiten... ikusi zaigu, baina gauzak aldatzen ari direla uste dut. Gutako asko boluntarioak gara eta gure elkarteak indar handia hartzen ari dira. Antolatuta gaude eta estatuko administrazio guztiekin harremanak ditugu.

Denbora librean zer gustatzen zaizu egitea?

Irakurtzea. Batzuetan nobela irakurtzen dut, beste batzuetan entsegua...

Juan Mari Garitano Nagusilan elkartearen egoitzan duen bulegoan.



Aldizkariak ere irakurtzen ditut, egunean egoteko. Elizakoak ere heltzen zaizkit. Gaztetan mendira asko joaten nintzen, baina dagoeneko lagata dut. Euskal Herriko mendietan ibiltzen ginen. Zumarragatik Azkoitira, Maltzagara, Izazpi, Kizkitza, Aralar, Aizkorri, Ernio... **Elizkoia zara, beraz. Zer iritzi duzu gozain berriari buruz?**

Zumarragara etorri zenean alkate nintzen eta behin edo behin berarekin egongo nintzen, baina ez dut gogoratzen. El Salvadorrekoek bertan lan handia egin zuela esaten dute eta gotzaingoan ere egingo al du... Gure jendearen artean, ordea, ez dago ondo ikusita. Egibarrek, esaterako, eskuinetara paretan besterik ez duela esan zuen. Kristau ona izango da behintzat...

Zumarragara askotan joaten al zara?

Urtean 6-8 aldiz. Ilobak ditut bertan eta nire emaztearen ahizpa ere bertan bizi da. Bestalde, Zumarragako Kasinoko

bazkidea naiz oraindik. Bestalde, Ayma enpresako kontseiluko lehendakaria naiz. Hiruzpalau bilera izaten ditugu urtean. Zumarraga bihotzean daramat. Urretxu ere nire herria da, noski: bertan lan egin nuen, bertan lagun asko ditut, gazte denboran bertako neskalagunak izan nituen... Non jaio nintzen galdeztzen badidate, Elgoibarren jaio nintzela esaten dut, baina Zumarraga baino gutxiago ezagutzen dut. Garai batean Zumarragan oso ezaguna nintzen eta hango saltsa guztietan sartuta nengoen. Herriko gauza gehienetan sartuta ibili naiz, Urolan ezik. Ez dakit zergatik.

Nola ikusten duzu Zumarraga?


Oso dotore dago. Zelai Arizti ingurua ondo gelditu da, Euskadi plazan lore batzuk jarri dituzte dotoretu nahiean... Lan kontua ez dakit nola dagoen... Dagoeneko lantegi handirik ez dago, baina txikien bitartez arnasa hartzen dela eta dirua mugitzen dela uste dut.

1964

Santa Ageda bezpera

Zumarragako lau lagun, Santa Ageda bezperan: Juan Carlos Egiguren, Francisco Javier Kortaberria, Joakin Zaldúa eta Anjel Mari Etxeberria.





Herri Aldizkaria Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.
- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkartea
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
otamotz@otamotz.com

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

Asier de la Iglesia: Saskibaloia jokalaririk ibiltaria

Saskibaloitik bizi diren Euskal Herritarrek ez dira asko. Horietako bat Asier de la Iglesia zumarragarra da. Zazpigarren urtea du EBA ligan eta dagoeneko sei talde ezagutu ditu. Denboraldi honetan Azpeitiko Lan Mobel-Iraurgin jokatzen ari da. 26 urte ditu, bi metro neurtzen du eta hegaleko-pibot postuan jokatzen du.

Asier de la Iglesia, Urretxuko Aldiri kiroldegian.



Nolatan zaletu zinen saskibaloira?

Futbolean jokatzen nuen, Urolan, eta 16 urterekin saskibaloira pasatu nintzen. Denboraldia hasita zegoela eman nuen izena Goierriin.

Bi metro neurtzen duzu. Zer moduz moldatzen zinen futbolean?

Nahiko ondo. Zentral postuan jokatzen nuen. Garai hartan ez nintzen egun bezain altua. Urola utzi nuenean 1,84 neurtzen nuen eta tiraldia eman nuenean dagoeneko saskibaloian jokatzen nuen. Urtebetean 13 zentimetro hazi nintzen. Goierrikoak asko poztu ziren, noski.

Zenbat denbora eman zenuen herriko taldean?

Junior mailan bi denboraldi eman nituen eta senior mailan beste bi. Oporretan Zamorara joaten naiz, bertako taldeko zuzendaritzako kide batek jokatzen ikusi ninduen eta aurre-denboraldia eurekin egiteko aukera eskaini zidaten. Beraiekin jokatu nituen bi lagunarteko partidetan

Lan Mobil-Iraurgiko taldekideekin.



ondo aritu nintzen eta EBA ligan jokatzeko aukera eskaini zidaten. Orduetik maila horretan aritu naiz.

Oso gaztea zinen Zamorara joan zinean.

19 urte nituen eta UGLEn ikasten ari nintzen, baina saskibaloia asko atsegin dut eta EBA ligan jokatzeko balio ote nuen jakin nahi nuen. Esperientzia bikaina izan zen: neure kasa bizitzen ikasi nuen eta, gainera, denboraldi ona osatu nuen. Horrek beste talde batzuen atak ireki zizkidan.

Beste maila batean jokatzeko aukerarik izan al duzu?

LEB ligan jokatzeko aukera izan dut, baina talde guztietan jokalaria amerikarrak dituzte nire posturako eta partidako 10-15 minutu jokatzeko bakarrik ziurtatu didate. Gainera, Euskadi inguruan LEB mailako oso talde gutxi daude eta gai-

nontzeko tokietan hemen baino gehiago ordaintzen dute.

LEB ligako zein taldetan jokatzeko aukera izan zenuen?

Gijongoek lehen taldearekin entrenatzeko eta bigarrenarekin jokatzeko aukera

“EBA ligan jokalaria

garrantzitsua

naizela ikusi dut

eta LEB liga probatu

nahi dut”

eskaini zidaten. Palentziakoak ere interesatu ziren. Udan nire agenteak interesa azaldu duten taldeen berri ematen

dit, baina eskatzen ditudan baldintzen berri ematen diedanean asko atzera botatzen dira. Gainera, nire neskalaguna Azkoitikoa da eta sekula ez dut irletara joan nahi izan.

Hala ere, saskibaloitik bizitzea lortu duzu.

EBA ligan profesionalak ez diren asko daude, baina beste batzuek soldata onak dituzte. Euskadin ez da asko kobratzen, baina beste erkidego batzuetan diru asko izan dute: klubak eta jokalariek higiezinaren boomaz baliatu gara. Babesle asko etxegileak ziren eta euren etxebizitzetan bizi ginen.

Aurten etxera itzuli zara. Zergatik?

Iaz Santanderren izan nintzen eta oraindik dirua zor didate. Hemen gutxiago kobratzen da, baina soldata agindutako egunean ordaintzen dute. Ez dut dirua kontuan sartu duten begiratzeko, greba egiten... ibili nahi. Dagoeneko 26 urte ditut eta egonkortasuna behar dut.

Senitartekoen eta lagunek etxetik gertuago jokatzeko eskertuko dute.


Itzultzeko beste arrazoi bat hori izan da: aurreko hiru denboraldiak Murtzian, Castellon eta Santanderren eman ditut eta neskalagunak gertuago jokatzeko nahi zuten. Duela lau urte ere Azpeitiko taldean aritu nintzen eta orduan ezagutu nuen bera.

Zer moduz doa denboraldia?

Oso ondo. Hamar partida irabazi ditugu eta bi bakarrik galdu.

Duela aste gutxi batzuk jokatuak partida batean 31 puntu lortu zenituen.

Nire partidarik onena izan zen: 31 puntu lortu nituen eta 12 errebote eskuratu nituen. Oso gustura aritu nintzen, baina luzapenean lesionatuta aritu nintzen: joka-



Baloia saskiratzen.

lari bat gainera erori zitzaidan eta meniskoa ukituta dut.

Zeintzuk dira zure planak?

Mailaz igotzea eta Azpeitian gelditzea gustatuko litzaidake. EBA ligan jokalaria garrantzitsua naizela ikusi dut eta LEB liga probatu nahi dut.

Zer nolako jokalaria zara?

Fisikoki mugatua naiz. Nik defendatzen ditudan jokalariaik ni baino altuagoak dira eta beste baliabide batzuk erabili behar ditut: distantzia ertaineko tiroa, kolokazioa, baloirik gabeko jokia, aurkariak niri faltak egitea... Jokoa ondo interpretatzen dudala esaten dute.

Azpimarragarria da, berandu hasi baitzinen saskibaloian jokatzeko.

Lehenengo eskubaloian aritu nintzen eta gero futboleko. Beti esan dut kirol ezberdinak probatzea oso onuragarria dela.

Koordinazioa hobetzeko mesedegarria da. Saskibaloian bakarrik aritu izan banintz, zangoekin baldarragoa izango nintzen. Gainera, diziplina ezberdinak probatzea norberarentzat egokiena zein den jakiteko modu bakarra da.

Orain arte saskibaloian talde askotan aritu zara. Zergatik?

Talde guztietan kontratua berritu nahi izan didate, baina urtero taldez aldatu dut. Batzuetan diru kontuagatik joan naiz eta besteetan kirol kontuagatik.

Zein taldetan egon zara gustuen?

Oroitzapenik onenak Zamorakoak dira. Lehen urtea nuen etxetik kanpo, 19 urte besterik ez nituen, ez nuen jokatzeko espe-

“ACBra heltzeko

saskibaloian jokatzeko

jakin behar da eta

ezaugarri fisiko zehatz

batzuk izan behar dira”

ro eta titularra izan nintzen, egunkarietan ateratzen nintzen... Espero ez nituen gauza asko pasatu ziren eta, gainera, saskibaloian profesionalaren ateak ireki zitzaizkidan. Urte hartan Zamorara joan izan ez banintz, beharbada oraindik Goierrin egongo nintzen eta tailer batean lan egingo nuen. Horrek ez du ezer txarrik, baina nire ametsa saskibaloian jokalaria profesionala izatea zen.

Zein izan da zure denboraldi onena?

Cartagenan ondo aritu nintzen eta Espainiako Federazioak EBA ligako 40

onenen zerrendarako hautatu ninduen. Gure arteko txapelketa jokatu genuen eta finalean 25 puntu sartu nituen. Kontzentrazio hartan egun ACBko Lagun Aro taldean jokatzeko duen Epiarekin egon nintzen logelan.

ACB entzutean, zer diozu?

Eeeez... ACBra heltzeko saskibaloian jokatzeko jakin behar da eta ezaugarri fisiko zehatz batzuk izan behar dira: saltoa, abiadura, altuera... Hegaleko postuan jokatzeko azkarragoa izan beharko nintzateke eta pibot aritzeko, berriz, altuagoa izan beharko nintzateke. Finlandiako gorengo mailako talde batean jokatzeko aukera izan nuen, baina ACB Europako liga onena da. Are gehiago, LEB Oro delakoa Europako laugarren liga onena dela esaten da.

Euskadiko selekzioarekin, ordea, aritu izan zara.


Uda honetan deitu didate lehenengoz eta ilusio handia egin dit. Gainera, aurten Lau Nazioen txapelketa Euskadin jokatu da eta senitartekoek eta lagunek ni ikusteko aukera izan dute. Datorren urtean ere deitzea espero dut.

Zein da zure saskibaloian talderik gustukoena?

Ez naiz talde baten edo bestearen zalea. Estudiantesen filosofia gustatzen zait, harrobia zaintzen baitu. Gainontzekoek hori egitea gustatuko litzaidake. Jokoari dagokionez, Baskoniarena gustatzen zait. Azken urteotan oso ondo jokatu du eta fitxaketekin asmatu du.

Bukatzeko, zein da zure jokalaririk gustukoena?

Arvidas Sabonis. Berandu hasi nintzen jokatzeko, baina saskibaloia beti izan dut gustuko eta Sabonis oso gogoko nuen.



Alex Areizaga

Informatika

Saretik bideoak jaisteko

Arrazoi batengatik edo beste batengatik, baliteke *youtubeko* edo bestelako bideo nabegatzaile batetako bideo bat jaisteko beharrean aurkitzea. Egun, modu askotara egin daiteke hau, webgune edo programa ugari eskaintzen baitute horretarako aukera. Joan den hilabetean aipatzen genuen *jdownloader* da horretarako erreminta bat, baina baita <http://keepvid.com> webgunea ere. *Jdownloader*rek bideoak .flv formatuan jaisteko aukera ematen du, baina *keepvid* webgunean formatu honez gain .mp4 moduan ere jaitsi ditzakegu bideoak, formatu uniber-tsalagoa dena. Horretarako webgunean sartu eta bertan agertuko zaigun zuloan jaitsi nahi dugun bideoaren helbidea besterik ez da sartu behar. Beti ere, hasierako orritik egin behar dira bilaketak, bestela beti bideo bera jaitsiko baitugu.



Deiane Perez

Osasuna

Pilates

Pilates Joseph Pilatesek aurreko mendean diseinaturiko ariketa multzo bati ematen zaion izena da. Arnasketa koordinatuz postura egoki batean egiten diren ariketetan oinarritzen da, giharrak flexibilizatzeko eta indartzeko modu aparta izanik. Ariketa programa hauek oreka muskularra lortzea dute helburu. Bi bariante ditu: *Pilates Mattworka*, lurrean praktikatzen dena, eta *Pilates Studioa*, Pilates jaunak diseinatutako aparatuen gainean praktikatzen dena. Pilatesa, fitnesserako eta lokomozio-aparatuko lesioak errekuperatzeko erabili daitezke. Gihar eta eskeletoko asalduren errehabilitazioan pilates metodoaren helburu garrantzitsuena gorputzaren lerrokatzea, tonifikazio muskularra eta minik gabeko mugimendu funtzionalaren kontrola lortzea da. Edozein adineko pertsonak praktikatuz dezake. Gainera ondorengo gaitzentzat onura asko dakartza: lunbalgia, dortsalgia edo zerbikalgia kronikoetan, ostopenia eta osteoporosi kasuetan, haurdunaldietan (moldaketekin), bizkarreko sobrekargetan... Kontuan izan, edozein arazo ekiditeko mugimendu hauek guztiak profesional batek gainbegiratu behar dituela beti.

Arrastoa

Aureliaren astrakanari hautsa dario. Irimo elurtuta dagoenean, pinuek jasaten duten zama bera du soinean. Urtetako historia: hildako bat edo beste; lau poz, hiru neskato eta mutiko bakarra; barrua txikitzen ari zaion tristura handi bat; arkakuso familia, makillaje pixka bat; izerditik ere zerbait; gezurrak dozenaka; botila txikiko hamaika perfume; eta baita pozoi pixka bat ere. Hortik aurrera, astrakanaren azpian geratzen den guztia borondate ona da.

Lepotik zintzilika ditu beste mundura joan diren senitar-teko eta lagun guztien urrezko kateak. Irekita daraman astrakanak teloa jartzen die bateko eta besteko ama bir-jina, gurutze eta kristo guztiei. Ziriako, 1949-04-21. Isabel, 1956. Amparo, 1970-10-28. Braulio, 1925-07-12. Miren, 1966-02-08... Korapilatuta daramatza biriken atarian. Tarteka itotzen dute, tarteka arnasa berria ekartzen diote, tarteka lepoa jokatuko luke haien ohorearen alde, tarteka betikotasuna eman nahi lieke. Eta beti, baina beti-beti, ziurtasuna ematen diote: igurtzi eta igurtzi, lanpara-ko jeinuari bezala eskatzen dizkie medailetako sexudun aingeruei desioak.

Ez du ez desiorik ez irrikarik ezkututzen Aureliaren blusak. Zetazkoa dirudi. Garai bateko herriko denda baka-rean saltzen zen zeta horretakoa. Argia da, barruko elastikoaren itzala agerian uzteko lain. Aspaldi itzali zirenen suak ziren Aureliak piztu ohi zituenak, nahiz eta ondo ixten ez den botoiak, lotsagabe, iradokitzen dituen garai batean askoren fantasiak elikatu zituzten bularrak. Askatzear dagoen hori eta beste bederatziak nakar itxurakoak dira. Perla erdiak paparraren, bularraren eta sabelaren erdi-erdian. Hamar puntu: senarrari ospitalean ireki berri dioten ia zilborrerako bidea irudikatzen dutenak. Hari bisitan doa. Zenbat ke jarri izan duen madarikatuak bien artean!

–Ospitalera, mesedez –dagokion lekuan aparkatuta

dagoen taxi zuri batera hurbildu da.

–Poltsarik ba al duzu maletatokian sartzeko?–taxi gidariak alboko ispilutik ezin izan ditu emakumearen eskuak ikusi. Erantzunaz ahaztuta, laino batean geratu da gidaria: Allure.Hurbildu den emakumearen lurrinak eskutik helduta eraman du oroitzapenetara.

–Ez, ez dakart fardelik–taxi gidariak irtetera doan keinua egin du emakumea ate ondotik aldendu dadin–. Mila esker! –atea ireki dio emakumeari, leun itxi eta bere lekura bidea egin du taxi zuria inguratuz.

Leonen ahotik hitzak motzak, baina puru luze bat ateratzen da. Taxiko bezeroek ez dute ketutako bidaiagatik baizik gogoratzen. Pentsamenduak borobiltzen ditu kea kanporatzen duenean eta hitzak jaten ezer politik sentitu ezin duenean. Horregatik, gehienetan isilik politago dago. Gutxi batzuetan, ordea, duen onenak ihes egiten dio. Eta oso ona ere badaki izaten Leonek.

Kopeta amaigabea falta zaizkion ile guztiak bekainetan ditu. Nahi baino arinago galdu zituen burukoak, aitaren herentzia. Aurpegikoak, aitzitik, urtetan kimatu eta orraztu beharko ditu, amaren herentzia. Urdintzen hasita dauzka gehienak: sasiak eta sastrakak izotzak hartzen dituen bezalatsu luzitzen dute gizonaren aurpegian Haietan, urdinduetan eta beltzetan beltzenetan katramilatzen zaizkio ezinikusiak, izerdi tantak, begirada txarrak, begitan hartutakoak, begirada lizunenak, kea kiloka, begiko dituenak eta oraindik geratzen zaizkion hamaika ikustekoak.

Amaia Artolazabal Amilleta

www.otamotz.com/index.php Web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Lucia Otaegi

Lucia Otaegi zumarragarrik hirugarren saria lortu du abendua hasieran Madrilen jokatu den 20 urtetik beherakoen Estatu mailako klarinete lehiaketan. Otaegik 17 urte ditu eta Sekundino Esnaola musika eskolako eta Donostiako kontserbatorioko ikaslea da. Horretaz gain, Joxe Mari Iparragirre institutuan Batxilergoko bigarren maila egiten ari da. Musika bere lanbidea izatea nahi du eta datorren urtean goi mailako klarinete ikasketak hasiko ditu. Umetatik da musika zalea eta CDak jartzen oso txikitan ikasi zuela gogoratzen du.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Albaitaria.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira joatea, lagunekin egotea, parranda egitea eta pianoa jotzea. Ahal dudan guztietan aitarekin mendira joaten naiz. Udan Pirinioetara joaten gara. Garmo Negro eta Hiru Erregeen Mahaia igo ditut, besteak beste.

Bizitzeko toki bat?

Nire herri kuttuna Zumarraga da, baina hiri handi batera joatea gustatuko litzaidake. Donostia, adibidez.

Gustuko mendia?

Hemen inguruko artean Anboto gustatzen zait.

Gustuko musikaria?

Klasikoen artean Beethoven. Jazza ere asko gustatzen zait, Michael Buble batez ere.

Abesti bat?

Beethovenek klarinete, txelo eta pianoarekin jotzeko konposatu zuena.

Gustuko musika mota?

Klasikoa eta jazz. Rocka ere asko gustatzen zait. Egia esan, musika mota guztiak atsegin ditut.

Zein orkestrarekin joko zenuke gustura?

Txikitan egunen batean Vienako filarmonikarekin Urte Berriko kontzertua joko nuela esaten nuen.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Biak.

Egindako azken oparia?



Aitona-amonei euren urrezko ezteietan argazkia jartzeko opari-tu nien markoa.

Eta jasotakoa?

Urtebetetze egunean lagunek egin zidatena.

Data bat?

Santa Isabel eguna.

Mutil eta neska izen bana?

Josu, anaiarena, eta Haizea.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Ahal dudan guztiak irakurtzea gustatzen zait.

Gustuko telebista saioa?

Telesailak gustatzen zaizkit. *Anatomia de Grey*, esaterako.

Bereziki gorroto duzuna?

Anaiak jartzen dituen marrazki bizidunak.

Liburu bat?

Joseph Gelinek idazlearen *La décima sinfonía*.

Pelikula bat?

La roca, *El odio*, *Las locas aventuras de Robin Hood*...

Soinu bat?

Orkestra zuzendariak jotzeko agindua eman aurreko segundu-tako isiltasuna.

Usain bat?

Ogi egin berriarena.

Janari bat?

Mendi gailurrera heltzen naizenean jaten dudan txorixo otartekoa.

Ura ala...

Garagardoa.

ESKOLA PUBLIKOA



*Urteak eman ditu
hainbat berri mota
guk pakeari jarri
nahi diogu nota
klabe horretan urte
berri on bat opa
egin esperantzaren
burbuiletan topa*



J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
DBH-BATXILERGOA (A,D)
Erdi Mailako Heziketa Zikloa
"Erizaintzako Zaintza Osagarriak"
Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu



Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Legazpiko Olazabal Institutuaren ondoan
6 chalet adosaturen eraikuntza eta salmenta

Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak